

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2023ko UZTAILAREN 26an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2023ko uztailaren 26an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 13:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain  
Ander Iturri Torrea  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Vicente Garcia Momblona  
Jose Agustin Arrieta Eguiguren  
Maria Isabel Vaquero Montero


Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
2. **Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
3. **Oporrak bakean programaren babesean, Larraulgo herrira etorritako haurren udalekuak finantzatzeko diru-laguntza eskaera/ Al amparo del programa oporrak bakean, solicitud de subvención para financiar las colonias de verano al niño acogido en Larraul.**
4. **Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2023ko 3. Eta 4. Hirhilabeteko ekarpenak burutzea./ Realizar las aportaciones correspondientes al 3. y 4. Trimestre de la Mancomunidad de Servicios de Aiztondo.**
5. **2022ko Kontu Orokorraren behin betiko onespena, hala bada/Aprobación definitiva de la Cuenta General del 2022**
6. **Tolosaldeko 24 udalen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren onespena, Andragora, Tolosaldeko emakumeen etxea kudeatu, finantzatu, jarraipena egin eta kontrolatzeko/ Aprobación del convenio de colaboración entre los 24 ayuntamientos de Tolosaldea para la gestión, financiación, seguimiento y control de Andragora, casa de las mujeres de Tolosaldea.**
7. **Beste batzuk/Otros.**
8. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

..//...



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 34/2023tik 41/2023ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **BIGARRENGO PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Idazkari-kontuhartzaile andreak batzarkideei jakitera ematen die gaia badaezpada sartu zela udalbatza honetako gai zerrendan, beraz, puntu hau bertan behera gelditzen dela. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **OPORRAK BAKEAN PROGRAMAREN BABESEAN, LARRAULGO HERRIRA ETORRITAKO HAURAREN UDALEKUAK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA**

Ikusita oporrak bakean programaren babesean, Larraulgo familia batek Saharako haur bat hartu duela bere etxean uda aldia igartzeko. Horretarako eta haurra Larraulgo herrian integratu dezan, Aiztondo bailaran antolatzen diren udalekuetan parte hartuko du, konkretuki Larraulgo herrian antolatzen diren udalekuetan.

Ikusita, 2022 urtean Larraulen zeuden haur Ukraniarren udalekuen kostua udalak finantzatu zituela.

Ikusita Y.R. andreak eginiko eskaera, non, bere etxean uda-aldia igartzeko hartu duen Saharako hauraren udalekuen kostea finantzatzeko diru-laguntza eskaera.


Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

*ERABAKITZEN DU:*

LEHENGOA.-Larraulgo udalekuetan parte hartu duen Saharako hauraren kostua Larraulgo udalak finantzatzea.

BIGARRENGOA.- Dagokion gastua onestea.

HIRUGARRENGOA.-Erabaki honen berri Y.R. andreari ematea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2023KO 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA**

Ikusirik 2023ko ekainaren 30ean Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2023 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 15.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 12.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2023 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 15.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2023 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2023 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 12.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

BIGARRENA.- 15.000,00 eurotako gastua onartzea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**


#### **2022ko KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2022 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkion.

Ikusirik 2023ko maiatzaren 18an argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2023ko maiatzaren 19tik ekaiaren 8ra bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia aztertutik, bozkatu egiten da, ondorengoa delarik emaitza:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Aldeko botoak: 5 (Arana, Cortajarena, Iturri, Rodriguez eta Momblona alkate/zinegotziek)
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioak: 2 (Eguiguren eta Vaquero zinegotziak, hauek diote bere abstentzioa dela kontuak aurreko legealdikoak direlako eta eurek ez zeudela udaletxean).

Beraz bozketaren emaitza ikusita, udalbatza honek, gehiengoz absolutoz, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2022 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespina ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**TOLOSALDEKO 24 UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPINA, ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA KUDEATU, FINANTZATU, JARRAIPENA EGIN ETA KONTROLATZEKO**

Idazkari andreak aipaturiko hitzarmena ez die bidali udal zinegotzietan, horregatik aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen da.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

**BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Maribel Vaquero zinegotziak hitza hartzen du ondorengo eskaerak egiteko:

-Udalbatzarrera doazen puntuak aztertzeke, batzorde informatzaile bat sortzeke eskaera luzatzen du.

-Udalbatzarrak egiteko eguna aldatzeke eskaera egiten du, posible bada astelehena edo ostiralera.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 13:30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.